

TAO Amara Berrin

Amara Berrin TAO sistema ezarriko da maiztetik aurrera. Udalak lehiaketa deitu zuen TAO sistema kudeatuko duen enpresa aukeratzeko eta hautagai bakarra aurkeztu zen lehiaketara: Donostiako gainerako TAO esparruak kudeatzen dituen Estacionamientos y Servicios enpresa. Enpresak, hilean, 30.000 euro eman beharko dizkio Udalari zerbitzua betzearen truke.

Maiatzerako abian izango da TAO sistema Amara Berrin, Udalak aurreikusitakoaren arabera. TAO esparrua Pio XII. plazatik Anoeta-raino ezarriko da; guztira, 3.074 aparkaleku izango dira, eta haietatik 503 auzotarrentzat gordeko dira.

Erabiltzaileek hiriko gune gehintsuenetan bezala ordaindu beharko dute, Carlos I eta Isabel II. kaleetan eta Anoeta inguruetan salbu. Carlos I eta Isabel II. kaleetan merkataritza TAOa ezarriko du Udalak, hau da, autoen jabeek ordu eta erdiz aparkatu ahal izango dute bertan eta lehen hamar minutuetan zerbitzua dohainik izango da. Anoetari dagokionez, kiról gunearen erabiltzaileek gubiago ordaindu beharko dute edo ez dute ezer ordaindu beharko. Denak dela, Udalak oraindik ez du zehaztu zein formula




ezarriko den Anoeta inguruetan, eta, beraz, ikusteke dago gune honetako TAO nolakoa izango den.


Berrikuntzak baditu Amara Berriko TAO sistemak, erabiltzaileek ordainketa txartel magnetikoaren bidez egin ahaliko dute eta.

Eserleku gehiago Anoetako estadioan

Donostiako Udalak eta Realak Anoetako estadioa egokitzeko eta 5.000 eserleku gehiago ipintzeko akordioa egin dute. Hitzartutakoaren arabera, Udalak eta Realak estadioa egokitzeko txosten teknikoa egitea eskatuko dute. Eserlekuak gehitzeko zer egin daitekeen aztertzea da asmoa. Estadioa handitzeko mahai gainean jarritako aukeretakoa bat atletismo pista kentzea da, baina Udalak eta Realak ez dute oraindik zehaztu neurri hori bi-deragarria iruditzen ote zaien.



Txalupa, porraren irabazle



Josune Mir. de Albeniz

Parte Zaharreko Fermin Calbeton tabernak irabazi du Real-Alaves derbiaren harira IRUTXULOK antolatutako porra. Txalupako Jose Marik ez ezik, beste zortzi tabernarik ere asmatu zuten emaitza: 3-1. Ohiko zozketa egin ondoren, Txalupari egokitu zaio saria: bi laguntzako bazkaria edo afaria Urepel jatetxean. Zorionak, Jose Mari eta on dagi-zuela!

Hitz eta pitz

Prosaz eta militantziaz

Beterriko Liburua aldizkariko martxo-ko alean Joan Mari Irigoien idazle altzatarra elkarrizketatu dute. Altzatarren hitzetan, "nik hogeitau urte nituenean, euskal poesia nahiko



garatua zegoen eta gure apostua prosa izan zen". Horregatik ekin zion prosa idazteari. "Euskararen militanteak izan ginen garai haietan eta prosa idaztea militantzia moduan ere har nezakeen momentu batean". Hala, Irigoienek bere benetako bidea aurkitu zuen ahalegin horretan. "Hala ere, pentsatu izan dut beste hizkuntza bateko idazle izan banintz, hizkuntza normalizatu batean, agian seguruago izango litzatekeela poesiari ekin izana".